

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko abenduaren 19a / 251. zenbakia / 19. urtea

- **HERRIKO KONTUAK** Arau Subsidiarioak 05
- **KIROLA** Hiru eskubaloj jokalarj selekzioan 08
- **AIAKO BERRI** Gabonetako agenda 11
- **IRITZIA** Unai Manterola 18
- **MOILA BAZTERRETIK** Aiora Larrañaga 19
- **HERRITARRA** Antonio Hernandez 25



Itsas paisajeak eta
arrantza **argazkietan**

Muskuilu Harria
elkarteak lehenengo
argazki lehiaketa
antolatu zuen. Hemen
jaso ditugu saritutako
lanetako batzuk.

Portu ERRETEGIA

Santo Erreka Aldea, 49
943 89 34 34
20809 AIA-ORIO

*Erakleak lantzen dituzten
materialak erretzeko erretze hornu*

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

ZUMINTZA irratia-erretze-erretze
irratia-erretze-erretze
irratia-erretze-erretze
irratia-erretze-erretze

SOLARIUM tel: 943 83 17 68

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Peikeria eta estetika mistoa

ZSS

- Tintak egonak eta koloretan naturalak
- Deslucetarako ointzi irratia
- Azkarrak erretzeak
- Pedicura
- Depilazioa

San Nikolas, 9 Tel: 943 83 51 70

Zaragueta Eskola **ORIO**

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

ASADOR XIXARIO

Eusko Gudari, 29
Tel: 943 13 10 37

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L

TIORROKAK - BALBUENA

Santiago auzoa - 18 postakutua
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM **AENOR** **ISO 9000**

Estorako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

tel/fax: 943 89 00 69
Bikola kalea, 4 - 20.800 ZARAUTZ

URBIDE

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

URAITZ
burdindegia
burdindegia

Enlatatutako - Tel: 943 83 18 37

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiroko zerbitzuak
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskelak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: harraspil@harraspil.net

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuk: tripaki, odolki,
txakorra, txerizo, krokettek...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

ZAPATA KONPONKETAK

Lanegutietan: 09:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00
Larrietan: 09:00 - 13:00
Berritze erremintak, Orle

PERTSIANAK

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 77

FISIOTERAPIA - Gaitortze Anstegi eta Nalaka Werszen
NUTRIZIONISTA - Garbete Aizpuru

sinergia *investigacion fisioterapia*

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telef: 943 83 08 12

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarr

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaMikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Maitane Garate, Iñaki Iturain,
Aiora Larrañaga eta
Unai Manterola**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakAne Etxabe eta
Ander Mujika (Orio)
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.000 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Franco, Orioko alkatea

IÑAKI ITURAIN (ERRIKOTXIA BERTSOZALEEN ELKARTEA)

Udalak hartzen ditu erabaki asko,
horien artean bada okerreko franko,
faxistek irabazi egin zutelako,
berroita beatzian onartu zelako:
Ohorezko Alkate da Orion Franco.

Bertan behera utzi nahi da izendapena,
herriak ez du hartuko inolako pena,
betiko ahaztu dezagun Francoren izena,
diktadore hiltzaile izan zenarena,
zoritxarrez oraindik gure alkate dena.

Izenak ez, izanak badauka itzala,
uste dut oraindikan indarra daukala,
herrian jarraitzaile batzuk badirala,
jokaera dutenak Francotxok bezala
ta hori aldatzeko garaia badala.

Norbait izendatzeko balego gogoia,
eredutzat jartzeko, imitatzekoa,
har dezagun gugandik norbait gertukoa,
sortzaile, bakezale ta autentikoa,
adibidez Oteiza ta Mikel Laboa.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK**IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Orioren istorio tristea

Isilik nabari da Orío eguzkia irtetea. Orduan, bat-batean, ausart batek begiak ireki eta une batez hitz bat jaurti du airera. Tamalez, azkar isildu da. Ahantzurak egin du gainerakoa. Dirudienez, norbait ongiari da bere lana betetzen.

Berekoikerian murgildurik bizi den udal baten istorio tristea da gure herri maite honetakoa. Herritarren kexuei ez zaie inolako jaramonik egiten eta, are gehiago, isilarazi egiten dira. Udalaren ustetan herritarrek herriari kalte egin nahi diote! Baina, ez al dira ohartzen begiak ireki dituen gure lagunak eta horretarako ausardiarik oraindik bildu ez dutenek osatzen dutela herria? Herritarrok gara herria; eta agintarien lana, gure onena bilatzea izan beharko luke.

Beraz, zer gara herritarrok handinahikeriak itsuturik dagoen herri batean? Zer izango gara alkatearen norbanako interesek gure herria hondatzen badute? Zer izango dira herri hondoratu bat ezagutuko duten gure ondorengoak? Ezer ez. Udalak azpiko koez baliatzen jarraitzen badu, ez gara eta dira ezer izango. Isilik nabarituko da Orío, baina eguzkia ez da gehiago irten.

JOSEBA VERHEGGE

Salaketa komunikatua

Inaxio Uria Mendizabal erakitzaile azpeitiarraren aurka egindako atentatu doilor eta higuingarriaren aurrean, Urola Kostako Udal Elkarte Zuzendaritza Batzordeak, abenduaren 5ean egindako ohiko bilkuran elkaturik, honakoa onartu eta publiko egitea erabaki du:

1. Gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu hilketaren horregatik, beste behin ETAre zentzugabekeria eta izugarrikeria gure gizartean

ezartzeko saiakera erakusten duena.

2. Gure elkartasuna eta samina adierazten diegu Inaxio Uria Mendizabalen familiari eta Altuna eta Uria enpresako langile eta zuzendariei. Une latz hauetan, enpresa horrek Urola Kostako eskualdearekin duen lotura gogorazi nahi genuke, eskualdeko bizilagunentzat egin izan diren oinarriko ekipamendu askoren egile izan dira, herriaren garapen eta modernizazioan lagundu dute eta laguntzen jarraitzen dute.

3. Hilketaren honek oinazea eta nahigabea eragiten dituguan, eta horrek izuaren arrazoirik ezaren biktima direnei besarkada bat bidaltzera bul-tzatzen gaitu.

4. Gure gizartean ez dago indarkeriarentzako eta terrorismoarentzako lekurik, heriotza eta suntsipena besterik eragiten ez dutelako. Ezta hori gorai patzen eta defendatzen duten guztientzat ere. Euren idealak azaltzeko indarkeria hautabide bakar bezala erabiltzen dutenak ezin dira inoiz kontuan hartu herri baten bizitzan, eta are gutxiago ezin ideia politikoren defendatzaile gisa.

5. Horregatik, gure gaitzespena azaldu nahi dugu, beste behin ere, ETA talde terroristaren aurrean, eta berehala desagertzeko eskatzen diogu Urola Kostako Udal Elkartearen izenean. Bakea bakarrik nahi dugu euskal herritarrok. ETak bere alde-rik armak berehala eta inolako baldintzarik gabe uzteak bakarrik itzul dezake, gaur, aipaturiko itzaropena.

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEA

San Nikolas festak

Lerro hauen bidez, aurtengo San Nikolas festak primeran ateratzeko lanean aritu direnei eskerrik beroenak eman nahiko nizkieke Udalaren ize-nean.

Ostiral arratsaldean hasi ginen Txurrunuskirekin,

zorionak zuri kantatzen, eta astelehen gauean bukatu Aiko taldearekin dantzatzen. Tarteetan zaldi erakusketa, dantzari txapelketa, paellak, grafitiak, herri kirolak, xakea, babarrunak... era eta estilo guztietako musika, besteak beste. Ekitaldiz betetako egunak izan dira eta ezin guztiak hemen zerrendatu.

Programa prestatzen, antolaketan, talde ugari izan ditugulaguntzen egin ditugun bilera guztietan. Guztiei mila esker eta hurrena arte.

NOEMI OSTOLAZA. KULTURA, GAZTEDIA ETA FESTETAKO BATZORDEBURUA

Errege Magoei laguntzeko

Kaixo, Orioko haur eta gazteak. Hau irakurtzen duzuenen Gabonetako oporren hasieran izango zarete. Badakizue, urtero bezala, Errege Magoei ongi etorria egiteko panderoak, danborrak eta barrikak astindu behar direla. Horretarako lanean hasi besterik ez zaigu geratzen. Abenduaren 19an, arratsaldeko 19:00etan Ikastolako pergolan, sei urte-tik gorakoei izenak hartuko zaizkie eta lehen entsegua abenduaren 20an eguerdiko 12:00etan izango da. Antolaketan parte hartu nahi duten gurasoentzat eta herritarrentzat ere bada dei hau: animatu!

Bestalde, jaiotza, kantu eta jantzien lehiaketa Ikastolako pergolan egingo da abenduaren 26an, arratsaldeko 17:00etan. Polita litzateke abenduaren 24an, arratsaldean, jaiotzarekin kalez kale ibiltzen diren taldeek lehiaketan parte hartzea.

TALAI MENDI M.A.

Kantu eskea

Herriko kultur talde eta eragilei: kantura gonbidatu nahi zaituztegu Gabon arratsaldean.

Abenduaren 24an, asteaz-

kenean, arratsaldeko seieta-tik zortzietara kantuan jarri nahi dugu herria. Herritarrek, familiak, koadrilak, herriko kultur eta kirol taldeak, denak zaudete gonbidatuta horretara. Helburuak hamaika eta nork berea: barrua goxatzea, Gabon eguneko arratsaldean giro goxo eta herrikoia sortzea... Goizean herriko haur guztiak elkarrekin ibiltzen dira kantari... ea helduak antzeko argazkia errepikatzen gauza bagaren iluntzean!

Ez gara kantari profesionalak, ezta beharrik ere. Baina ez dago sobera proba saioak egitea. Hilaren 15ean, 17an eta 23an izango dira parrokiako saloian edo kultur etxean. Lehenengoa, 15ekoa, iluntzeko zortzietan parrokiako saloian.

Errikotxia Orioko Bertsozaleen Kultur elkarteak, san Pedro egunean arratsaldean egin zuen herrian lehen kantu-jira edo kantu-poteoa. Berdin egin genuen sanikolasetan, hilaren 8an Euskal Jai egunez.

Gabon arratsean ere izaten da aukera lagunartean afalurreko bueltatxoak eginez jai giroan murgiltzeko. Hori aprobetxatu nahi dugu, urte osoan, batera ez bada ere herri berean lanean gogotsu gabil-tzan guztiok festa-usainean biltzeko. Norberak badaki egun horretan dituen sentipenak: kultura, herri-mina, familia, fedea nahiz tradizioa, baina denok onartzen dugu egun horiek badutela, nolabait, denok hobeak egiteko indarra, akuilua.

Kanturako, Udalak datoren astean bertan aterako duen herri-kanten hirugarren liburuxka erabiliko dugu, eta bihoakio Euskara Zerbitzuari alde aurreko esker ona.

Besterik ez, Eguberri on guztioi eta animo kanturako!

ERRIKOTXIA BERTSOZALEEN KULTUR ELKARTEA

20. ORRIALDEAN GUTUN GEHIAGO

ALDUNDIAK ETA UDALAK ERREKURTSOA JARRI DUTE AUZITEGI GORENEAN

Auzitegi Nagusiak baliogabe utzi ditu Arau Subsidiarioak

Orioko lurjabe batek EAEko Auzitegi Nagusian errekurtsoa sartu zuen Orioko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onarturiko Orioko Arau Subsidiarioen aurka eta epaileak arrazoi eman dio.

2007ko martxoaren 12an, Orioko lurjabe batek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa sartu zuen EAEko Auzitegi Nagusian, Bilbon, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2006ko abenduaren 26an onartutako Orioko Arau Subsidiarioen aurka.

Apelazioa bi arrazoitan oinarritzen da, biak Anibarko Portuko Hirigintzako Planaren ingurukoak.

Batetik, lurjabeekuste dute desjabetu zaizkien lurren balorazioa ez duela modu egokian egin Udalak, ordaindu beharrekoa merketzeko: lurzati bat lur eraikigarri gisa baloratu du eta beste bat, berriz, errotonda doan tokia, ez eraikigarri gisa. Bestetik, salatu dute, Orioko Arau Subsidiarioak egiterakoan, ez zela inolako ikerketa ekonomiko-finantzariorik egin eta beharrezkoa zela.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, Arau Subsidiarioak osatzean ikerketa ekonomiko-finantzarioa egitea ez dela beharrezkoa dio, eta hori ez aurkezteak ez duela zalantzan jartzen arauen bidegarritasuna eta, beraz, inolaz ere ezin direla baliogabetu. Aldundiaren arrazoibideak bere egin zituen berehala Orioko Udalak.

EPAIA

Epaia urriaren 15ean eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Ana Isabel Rodrigo Landazabal epaileak, eta beraz, geroztik,



Anibarko Portuko inguruan egiten ari diren lanek sortu dute lurjabeen errekurtsoa.

KARKARA

Orioko Arau Subsidiarioak baliogabe daude. Epaia ez du aintzakotzat hartu lehen arrazoibidea; baina bai bigarrena eta dio beharrezkoa dela ikerketa ekonomiko-finantzarioa egitea, Arau Subsidiarioak prestatu aurretik.



Ez eraikigarria bezala jarri zuen Udalak Anibarko Portuan jabeak duen lursaila, desjabetze prozesuko kostuak merkeagoak izateko

ERREKURTSOA

Orioko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Espainiako Auzitegi Gorenean, Madrilen, epai horren aurka errekurtsoa jarri zuten eta kasu honetan ikerketa ekonomiko-finantzarioa egitea



Gipuzkoako Foru Aldundiak Arau Subsidiarioak osatzean ikerketa ekonomiko-finantzarioa egitea ez dela beharrezkoa dio

ez dela beharrezkoa berretsi zuten.

Jon Karrerak, Orioko Udaleko idazkari-kontuhartzaileak, KARKARARI adierazi dionez, harriduraz hartu dute epaia: *Arau Subsidiarioak udalbarrean onartuak izan ondoren, ontzat eman zituzten Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, aztertu ondoren, eta inork ez zigun esan ikerketa ekonomiko-finantzarioa beharrezkoa zenik. Madrilgo epaia hiru edo lau urte barru jakingo da, baina, badaezpada, dokumentu hori prestatzen hasi gara, dagoeneko.*

Arau Subsidiarioak bertan behera uzteak herriko lanek geldiaraztea ekar lezake, baina Plan Partzial bakoitza banan-banan aztertu behar litzateke lanekin jarrai dezaketela ala ez jakiteko.

IDAZKERA HOBETZEKO IKASTAROA URTARRILERA ATZERATU DA

Euskara Batzordearen lanak herritarrentzat eskura

Orioko Euskara Batzordeak euskararen erabilera zabaltzeko eta hizkuntza normalizatzeko material interesgarriak plazaratu ditu.

Idazkera hobetzeko ikastaroa antolatu zuen abendurako Euskara batzordeak, baina urtarrilera —17an izango da lehen saioa— atzeratu da, jende gutxitxo apuntatu dela eta. Erregeak pasa ondoren, izena emateko epea beste astebetez irekiko da, taldea osatzeko, eta Euskara Zerbitzuan egin beharko da.

Azaroaren bukaeran, berriz, azken urteotan izandako aldaketak jaso eta herriko toponimoen forma normalizatuak zabaltzeko, herriko plano argitaratu zuten Euskara Zerbitzuak eta Udal bulego teknikoak, elkar lanean. Udalerriaren plano zehatza —eraikinak, bideak, kaleak eta toki izenak jasotzen dituen— eta ortofotoa daude planoaren alde banatan eta etxe guztietan banatu da.

GABONETARAKO

Gabonak inguratu ahala euskarazko produktuen katalogoa ere kaleratu du Euskara Batzordeak guraso, haur eta gazteentzako merkatuan dauden 317 produkturen eskaintza bilduz. Interneten ere www.katalogoa.org atarian aurki daiteke katalogo hori.

Bestalde, kantu liburuxkaren edizio berri bat kalera-



Barazkien, arrainen eta fruten euskarazko izenak dituzte kartelek.

KARKARA

Kantu liburuxkaren bertsio berri bat kaleratuko du Euskara batzordeak. Gabon gaueko kantu jiran erabiliko da

tuko du Euskara batzordeak abenduaren 22an. Gabon gaueko kantu jiran ere liburuxka hori erabiliko da.

DENDETAN

Merkataritza Euskaraz karpainaren baitan arrainen, fruten eta ogien euskarazko izenak jasotzen dituen kartelak egin dira aurten. Arrandegietan, fruta dendetan, okindegietan eta bi eskoletan banatu dira Julian Toquerok diseinatuak. Modu horretara, produktuen euskarazko izenak erabiltzeko erraztasunak eman nahi izan du batzordeak. Kartelen bat nahi duenak Udaleko Euskara Zerbitzuan eska dezake.

LABUR

GERRA ZIBILA Berreskuratzea

Gerra zibilaren azken egunean (1936ko apirilaren 1ean) hil zen Aldape base-erriko Joxe Mari Arruti, Lleidán, batailoikoekin guda bukatu zela ospatzen ari zela, granada batek, harria jota, errebotez harrapatu zuenean. Borrokan zebiltzan hiru oriotarrek bertan lurperatu zuten haren gorpua. Handik hilabetera, Valle de los Caídos era-man zuten.

Orain arte han egon dira hilotzak eta, gaur egun, gorpuzkiak berreskuratzeke aukera aztertzen ari dira arrutitarrak.

KULTURA

Ipuinak sortzen

Garoa liburu dendaren *Esporak sarean* atariak www.egarora.com/eu/esporkak Anjel Lertxundi Andu idazlearekin batera ipuin bat osatzeko aukera jarri du edonoren eskura.

DROGA OPERAZIOA

Orion atxilotua

Abenduan gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak Orion, 700 kilo haxix garajejan uzten ari zela. Beste 500 omen zeuzkan garajejan. Donostiako inostruzioko 3. epaitegiko titularrak kartzelara bidali zuen, polizia agenteen kontrako atentatua ere egotziz. Atxilotuaren bi lagunek alde egitea lortu zuten.



BERRIKUNTZEN ARTEAN, GOSPEL KONTZERTUA ETA AURTENGO KIROLZALEA FESTA IZANGO DIRA

Musika eta kantua nagusi aurtengo Gabonetan

Azken urteotan bezala, Gabonetarako programazio berezia antolatu du Udalak urtarrilaren 5a arte.

Abenduan hasi eta urtarrila bitartean zenbait ikuskizun izango dira herrian. Jarraian dituzue, labur-labur: Abenduaren 19an Antonio Elespe argazki lehiaketako sari bana-keta izango da kultur etxean, 20:00etan. 22an, Danbolin musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute elizan, 20:00etan; 24an, haurren kalez kaleko saioa izango da 10:45ean; Olentzero plazan izango da 17:00etatik 19:00etara; eta herritarrak kalez kale ibiliko dira, kantuan, 18:00etatik aurrera.

Hilaren 26rako kantu, jantzi eta jaiotzen lehiaketa antolatu du Talai Mendik 17:00etarako. Segidan gaztaina jana izango da. Ikastolako pergo-lan izango dira ekitaldi biak.

Filmak ikusteko aukera ere izango da kultur etxean: 27an *Olentzero eta subilaren lapur-rrera*; 28an *Ipar haizearen erroka*; eta 29an *Maitagarri andrea*.

Abenduaren 27an, *Aurtengo kirolzalea* 1. festa izango da, 12:00etan. 22:00etan, *Herribil 4* ikuskizuna Karel-an. Hilaren 28an Salatxo abes-batzak kontzertua eskainiko du elizan, 12:45ean. 29an, The Upper Room taldearen Gospel emanaldia izango da kul-



Ikastolakoak eta Zaraguetakoak elkarrekin arituko dira Olentzeroren eta Jaiotzaren inguruan kantari 24an.

KARKARA

tur etxean, 20:00etan. 30ean, *Xurdin eta Goringo lakuaren misterioa* ikuskizuna izango da Karel-an. 2 euro balioko du sarrerak eta kultur etxean eros daiteke, alde zurreratik.

URTARRILEAN

Urtarrilaren 2an eta 3an Gabonetako 14. haur parkea izango da kiroldegian. Goiz eta arratsalde irekiko da, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara.

Hilaren 3an, Lakrikum taldeak *Greban gaude* antzerkia eskainiko du Karel-an. 5 euro

balioko du sarrerak.

Urtarrilaren 4an, Erregeen karterua kalez kale ibiliko da Erregeentzako gutunak jasotzen. 12:00etan iritsiko da Oriara Bizarzuri.

Urtarrilaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasari harrera egingo zaie, kabalgatarekin. Kalez kale danbor hotsez lagunduta ibili ondoren, Karel-an hitz batzuk egingo dizkie herritarrei.

ERREGEEN KABALGATA

Talai Mendik antolatuta, egu-nero egingo dira entseguak

Haurren kalez kaleko kantu saioa izango da hilaren 24an, 10:45ean; 18:00etan, berriz, herritar guztiena

abenduaren 20tik kabalgata egunera arte. Lehen saioa 12:00etan izango da. Izena, berriz, abenduaren 19an eman behar da, 19:00etan.

Ille zaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzako
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

RAMIRO
erreportaje digitalak
943 83 10 48

ITZALA
kartetan jokatzen
943 83 12 59



Eibarren entrenatzen dute Jon Azkue eta Ander Atorrasagastik; Zarautzen, Josu Atorrasagastik.

KARKARA

JOSU ETA ANDER ATORRASAGASTI ANAIAK ETA JON AZKUE DIRA HAUTATUAK

Hiru oriotar Euskadiko eskubaloi selekzioan

Hilaren 6tik 8a arte Jon Azkue eta Ander eta Josu Atorrasagasti Euskadiko eskubaloi selekzioarekin entrenatzen aritu ziren, Espainiako txapelketa prestatzen.

Euskadiko eskubaloi selekzioak abenduaren 6tik 8ra jokatu zuen txapelketan hiru oriotar izan ziren: Josu Atorrasagasti jubenil kategorian, eta Jon Azkue eta Ander Atorrasagasti kadeteetan.

Jubenil kategoriakoek Madrilen jokatu zuten txapelketa eta Andaluziako, Madrilgo eta Gaztela-Leongo taldeak izan zituzten aurkari. Uste baino emaitza kaxkarra goak lortu zituzten arren—Andaluzia eta Gaztelaren aurka galdu eta Madrilekin berdinduegin zuten—gustura dago Josu emandako mailarekin. Hala ere, bera aritzen den posturako, pibote izate-

ko, lehia handia dagoela adierazi du eta gogor egin behar du duela lan lekua hartzeko.

KADETEAK

Jon Azkue eta Ander Atorrasagasti bigarren urtez jarraian deitu zituzten Euskadiko eskubaloi selekzioan aritzeko. Kadete kategoriako txapelketa Iruñean izan zen eta Nafarroako, Kantabriako eta Aragoiko selekzioen aurka jokatu zuten. Bi lehen lehiak irabaztealortu zuten, baina ez azkena. Atorrasagastik eta Azkuek adierazi diote KARKARARI bajen ondorio izan zela emaitza hobea ez lortzea.

Biak kadeteko lehen urtekoak dira (selekzioko txikiak biak) eta, beraz, partida guztiak jokatzea zaila izango dutela jakin arren, alai itzuli dira, minutu asko jokatuta: *Nekatuta, baina gustura gaudela, oso gogorra izan da egonaldia, lehen egunean 3 par-*

Gabonetan jokatu den Espainiako selekzioen arteko txapelketa prestatzeko balio izaten die

tida eta gainerako bietan bina entrenamendu egin baititugu. Taldeko 1. urteko kadete bakkarrak izanda, datorren urterako esperientzia hartzeko eta talde-lana prestatzeko balio izan digu.

Euskadiko selekzioak urtero egiten du data hauetan txapelketaren bat jokatzeko deialdia, Gabonetan—aurten, urtarrilaren 2-8, Valentzian eta Valladoliden—jokatuko diren Espainiako txapelketa prestatzeko balio izaten die eta.

LABUR

LASTERKETA

San Silbestre

Urteko azken egunean San Silbestre lasterketa izango da. 5 bat km egin beharko dituzte korrikalariak Karella kiroldegia ren paretik atera, hondartzaraino buelta bat, eta autopistako zubi azpiraino beste bat eginda.

Izena emateko epea irekita dago, Karelana bertan eman beharko da eta 2 euro ordaindu. Kamiseta bana eta partaide guztien artean zozketatuko diren opariak eskuratzeko aukera izango da.

JUDOA

Emaitza onak

Euskadiko txapeldun dira Oiana Blanco eta Ibai Peña, hilaren 12an Amurrión jokatu tako txapelketa irabazi ondoren.

Blancok brontzeko domina ere eskuratu zuen abenduaren 14an, Wasquehaleko txapelketan. Emilie Lafontek 2. borroka irabazi bazion ere, Blancok ez zuen hurrengo aukera galdu eta 3. izatea lortu zuen, Tiphaine Chaveri, Sabiha Daoudi eta Nadine Gillmeri irabazita.

ARRAUNA

Sariak jasoz

Donostiako Ollagorria Elkartean izandako ekitaldian Kontxan Gipuzkoako traineru onenaren saria (Juanxo Aginaga saria) jaso zuen Orioko Arraun Elkartek abenduaren 13an.

Bestalde, TKE eta KAEko Orioko ontzietako patroiek Gipuzkoako Traineru Ligako banderak jaso zituzten abenduaren 4an. Hilaren 11n, berriz, 2008ko Gipuzkoako arraunaren 8. galan izan ziren Orioko ordezkariak.

ELENA ETXEBERRIA | OBBKO PRESIDENTEA

“Oso zaila da ekonomikoki kategoriari eustea”

Festetan topatu ditugu OBBkoak, txosnetan lan egiten. Ekonomikoki zailtasun handi samarrak dauzkatela jakitun, taldeko presidentearekin izan gara hizketan, Elena Etxeberriarekin hain zuzen ere. Taldeko kontuen berri eman digu.

Denboraldia bukatuta, zer balorazio egiten duzu?

Espaniako txapelketan, kategoria guztietan, hirugarren izan ginen. Euskadiko txapelketan, kadete kategorian txapeldun geratu ginen azaroaren 30ean Orion jokatutako finala irabazi ondoren. Seniorretan, ordea, Ordizian jokatu genuen finala, azaroaren 23an, baina At. San Sebastianen kontra galdu egin genuen. Txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan dugu. Areto sofboleko Euskadiko txapelketa, aldiz, aurreko asteburuan, abenduaren bigarrenetan, jokatu genuen eta bai kadeteak eta bai ohorezko kategoriakoak txapelarekin itzuli ginen herri-ara. Aurora Makazagak jokalaria onenaren aipamena lortu zuen eta Olaia Makazagak jaurtitzaileraren onenarena.

Santomasetan, berriz, areto sofboleko Donostiako Nazioarteko Txapelketa jokatuko dugu.

Kiroldegietan aritu beharko duzue, hortaz?

Halaxe da, eta kiroldegi berezia behar du izan, gainera. Oriokoan, esaterako, ezin go litzateke jokatu, gradak bi aldetan baititu eta bateatzailerak pelota gradetara botako bailuke.

Oso dibertigarria da: errebotek izaten dira, kanasta jotzen badu ere balio du... kiroldegiko edozein atal da



Babesle bila dabilta OBB taldeko neska.

KARKARA

Ondo moldatzen gara Orioko futbol taldearekin, bai harremanetan eta baita zelaiaren ordutegien banaketan ere

zelaiaren parte. Hartzeko erraza ematen duen pilota bat, azkenean, zaildu egin daiteke.

Ricardo Garredak, Euskadiko federazioko presidentek, sortu zuen orain urte batzuk modalitate hori, hemen beti euria egiten due-

Autobusarekin, logelekin eta inkripzioarekin bidai bakoitzean 3.000 euro inguru gastatzen ditugu

la kontuan izanik. Eta orain Bartzelonan ere hasi dira antzeko zerbaitegiten. Donostian egiten den 6. urtea dela uste dut eta urteko azken torneo izaten denez, beti daude jokatu nahi duten taldeak. Italiatik etortzen dira, Frantziatik...

Gurera itzulita, zer moduz Mendibeltz zelai berrian?

Bigarren denboraldia da hor ari garela jokatzen eta dutxak, bulegoa eta materiala gordetzeko lekua bertan izatei karagarritzko onura da. Bestalde, ondo moldatzen gara Orioko futbol taldearekin, bai harremanetan eta baita zelaiaren ordutegien banaketan ere. Gure partiden ordutegia federaziotik ezartzen dute, beti igandeetan, 11:00etan eta 13:00etan. Bi partida jokatzen ditugu jarraian, joan-etorriak luzeak izaten direlako.

Noraino joan behar izaten duzue, ba?

Zazpi talde gara ohorezko kategorian: Madrilgo bi, Bartzelonako beste bi, Valentziako bat, Donostiako Athletic San Sebastian eta gu. Beraz, ekonomikoki kategoriari eustea oso zaila da, eta igotzea ere bai. Autobusarekin, logelekin eta izen ematearekin, bidai bakoitzean, 3.000 euro inguru gastatzen ditugu.

Eta nola lortzen duzue dirua?

Eliteko taldea izanik, Kirolgi fundazioak laguntzen gaitu, baita Orioko Udalak ere. Babesle bidez lortzen dugu beste diru gutzia; baina, momentu honetan, babesle bila gabiltza.

Aurtengo sanikolasetan txosna batzordeko kide izan zarete plazan.

Lehen gure taberna propioa irekitzen genuen, baina aurtun txosnetan parte hartu dugu. Bagenekien diru gutxiago aterako genuela, baina materiala erosteko ederki etorriko zaigu. Denera 40 bat lagun aritzen gara sofbolean, eta bolak eta bateak etengabe puskatzen dira.

ESTELA ATORRASAGASTI ALDABALDE TREKU | DANTZARIA

“Orioko dantza txapelketan urratu egin nituen abarkak”

Orioko sanikolasetan dantzari txikien txapelketan 3. izan zen 2006an, hurrengo urtean 2. eta aurten irabazi egin du Mikel Otegi dantza kidearekin. Hilaren 14an ere lehenengo postua eskuratu zuen Arrasaten. Arrakastaz gozatzeko momentuan hitz egin dugu Estelarekin.

Noiz hasi zinen dantzan?

6-7 urterekin Orion Musika Eskolan hasi nintzen, eta orain dela 5 urte hasi nintzen txapelketetan lehiatzen, gehienetan Gipuzkoan, Aitzol Ena orduko irakasle donostiarrak animatuta. Aurreneko txapelketan Asier Sarasolaren bikotekidea lesionatuta zegoelako sartu nintzen. Gero Mikel Otegi donostiarrarekin hasi nintzen eta elkarrekin jarraitzen dugu.

Zer sentitzen zenuen aurrenekoa hasterakoan?

Nerbioak! Aurrenekoa zelako, baina nahiko ondo egin genuela esan ziguten eta esperientzia behintzat hartu nuen.

Klasetara joaten zara?

Bai, Mikel eta biok Aitzolekin, astean behin. Udan batzuetan egunero egiten dugu, denbora dugulako eta txapelketa gehiago izaten direlako. Aurten Harribil taldean hasi naiz. Oso gustura nago, gauza diferenteak egiten ditugu eta. 27an izango dugu emanaldia Karelana eta betiko dantzez gain, Harribileko batzuk sortutako koreografiak egingo ditugu: Benitoren Mirotxa kantarena, adibidez.

Zenbat txapelketetan izan zara?

Urtean 20 bat izaten dira



Estela dantza bikotekidearekin sanikolasetan.

KARKARA

badigu, hobeto sentitzen naiz, lasaiago.

Gaur egungo estiloa eta lehengoa oso diferenteak dira?

Bai, lehen mugimenduak lasaiagoak izaten ziren. Orain denok oso berdintsu egiten dugu, askoz ere kontrolatua go.

Nekatu egiten zaitu horrek?

Etxera joan eta hankak nekaturatzen ditut. Batzuetan ur berotan edo hotzetan sartzen ditut lasaitzeko. Txapelketa egunean, akaso, entsaioetan baino dantza gutxiago egiten dugu, baina desberdina da: tentsio gehiagorekin egiten duzu dantzan eta gero gorputzean sentitu egiten da.

Abarka erosoak beharko dituzu.

Bai, baina gastatu egiten dira, eta berriak denbora batez erabili behar dituzu hankaren forma hartzeko eta larrua biguntzeko. Orioko txapelketan zulatu egin zitzaizkidan! Ez nintzen konturatu, bukatu arte, baina zeharo zulatuta zeuden. Urtero 3 aldiz edo aldatzen ditut.

Etorkizunean dantzarekin jarraitu nahi duzu?

Oraingoan, bai. Mikelek aurten 16 urte egingo ditu eta helduen kategoriarako pasako gara, nahiz eta nik 14 urte izan. Gogorra izango da, baina... Nire ilusioa da. Oso zaila da *Aukeran* bezalako talde batean sartzea, baina gustatuko litzaidake. Ilusioa badut. *Aukeraren* emanaldi guztiak ikusi ditut eta oso politak dira.

Zer ematen dizu dantzak?

Poza. Gozatzen dut. Ez dit ezer txarrik ematen.

Oso zaila da Aukeran taldean sartzea, baina gustatuko litzaidake

eta gehienetan sartzea lortzen dugu, udako batzuk kenduta, oporretan gaudelako. Baina aurten txorkatila bihurtu egin dut sofboleko partida batean, eta urteko lehenengo 10 bat txapelketetara ez gara joan. Joan, bai, ikustera, eta inbidia ederra pasatzera! Azkenean sofbola uztea erabaki nuen, bi gauzak ondo egiteko behar adina denborarik ez nuen eta.

Irakasleak lehiaketara laguntzen badigu, hobeto sentitzen naiz, lasaiago

Nolako prestaketak egiten dituzu lehiaketara baterako?

Aste horretan bi saio egiten ditugu, aurrenekoa oso gogorra eta bigarrena suabeagoa. Ez dut ezer berezirik egiten burua lasaitzeko, ezta pisua kontrolatzeko ere, baina, bai, pasta jaten dut beti lehiaketa egunean. Jantziak urtero-edo berritzen ditut, Rosaurak lagunduta. Eta irakasleak lehiaketara laguntzen

**ABENDUAREN 21,
IGANDEA**

■ Euskadiko harri-jasotze txapelketa

Azpeitian, Izarraitz pilotalekuan 12:00etan izango da eta honako lauak arituko dira nor baino nor: Unai Lertxundi (Aia), Aimar Irigoien (Errezil), Joseba Ostolaza (Zestoa) eta Bernardo Ureta (Arantzazu).

**ABENDUAREN 22,
ASTELEHENA**

■ San Tomas txistorra jana Goiz partean, Lardizabal eskolan.

■ Olentzero

17:00etan etorriko da Olentzero trikitilarien laguntzaz. Ondoren, opariak eta txokolate beroa banatuko dira hara hurbiltzen direnen artean.

**ABENDUAREN 24,
ASTEAZKENA**

■ Gabon eskea

9:00etan elkartuko dira herriko haur eta gurasoak auzoetako banaketa egiteko. Jarraian etxez etxe joango dira kantari.

17:00etan parte hartu nahi duten guztiak elkartuko dira herrian bueltatxo bat egiteko kantuz eta alaitasunez.

■ Aiako anbulatorioa itxita egongo da, baina Zarauzkoa zabalik.

**ABENDUAK 26,
OSTIRALA**

■ Zinea

16:30ean *Wall-e batallón* pelikula emango dute kultur etxean.

Gabonetako agenda**ABENDUAK 27,
LARUNBATA**

■ Euskadiko idi proba txapelketa

Partaideak: Ixarra (Itziar), Landazabal (Laukiz) eta Bilbao (Erandio). Sariak: 1.ak, 1.500 euro, mantak eta garaikurra; 2.ak, 1.200 euro eta garaikurra eta 3.ak, 900 euro eta garaikurra. Pisaketa apustu eguneko 10:00etan egingo da. *Harri handia* 1.850kg-koa da.

**ABENDUAK 28,
IGANDEA**

■ Zinea

16:30ean *Nocturna aventura magiko bat* eta 18:30ean *Hancock* filmak emango dira kultur etxeko aretoan.

**ABENDUAK 29,
ASTELEHENA**

■ PINera irteera

14:00etan irtengo dira haurrak eta gurasoak, 19:00ak aldera bueltatzeko. Sarrerak Iturriozenean eskatu daitezke abenduaren 26a bitartean. Sarreraren prezioa 5 eurokoa da, haur zein gurasoentzat.

**ABENDUAK 30,
ASTEARTEA**

■ Zinea

16:30ean *Kung Fu Panda* filma emango dute kultur etxean.

**ABENDUAK 31,
ASTEAZKENA**

■ Herri krosa

17:00etan hasiko da.

Helduek 4 km egingo dute eta hurrek 1.000 metro Aiako kaleetan. Izen ematea kultur etxean edo irteeran bertan.

**URTARRILAK 2,
OSTIRALA**

■ Zinea

16:30ean *Horton* pelikula emango dute kultur etxean.

**URTARRILAK 4,
IGANDEA**

■ Pailasoak eta Bizarzuri

11:30ean Poxpolo eta Mokolo pailasoen emanaldia frontoian. Sarrera 2 euro lehenago Iturriozenean hartuta, eta 4 euro egunean bertan.

■ Bizarzuri

Ondoren Bizarzuriri eskutitzak emateko aukera izango dute hurrek.

■ Zinea

16:30ean *El Cid-en kondaira* eta 18:30ean *La momia* filmak emango dituzte kultur etxean.

**URTARRILAK 5,
ERREGEAK**

■ Meltxor, Gaspar eta Baltasar

20:00etan etorriko dira herrira.

HAUR ESKOLA

■ Olentzero

16:30ean etorriko da Olentzero

KULTUR ETXEA

■ Festa eguneko ordutegia Abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra arratsaldez bakarrik irekita. 25ean eta 1ean itxita.

Bi aiar irabazle kapoiekin**Nekane Gonzalez eta Jose Inazio Egurza kalitatean sarituak**

Hilaren 13an, Urretxu-Zumarragan antolatutako Santa Luzia azokan bi aiarrek jaso zuten kalitatearen saria. Ibarrola Bekoa baserriko Nekane Gonzalez Saragueta eta Aiene baserriko Jose Inazio Egurza Agirre sarituak izan ziren. Aurtengo lehiaketan hegazti kopurua mugatu egin da, lehentasuna kalitateari emateko, eta ez dira lehiatu bata bestearen kontra. Euskal arrazako oilaskoen kalitatearen saria eman diete maila ona erakutsi zuten guztiei, aipatutako biei barne. Nekanek aurrekoetan ere irabazi ditu sariak. Jose Inazioaren kasuan, berriz, aurreneko aldiz jaso du.



AIAKO LEHIOA

Mahai inguruan

Aurten ere, ia konturatu gabe iritsi gara egutegiaren azkeneko orrialdera, abendura, alegia. Hilabete hau jai egunez beteriko hilabetea dugu.

Gabonak dira etxe gehienetan ospatzen ditugun jaiak; nola ospatu, gainera! Entzuten dudanez, elizara joan, sendi guztia elkartu, mahai baten inguruan bildu eta jatordu xume bat egitea izaten zen lehen helburu bakarra; gertakizunak kontatuz, kartetan eginez...

Gaur egun, ordea, guztiz aldatu dira ohitura horiek; esan daiteke kontsumorako egun aproposak bilakatu direla, kaleetan begiratu besterik ez dago esaten dudana ohartzeko. Argiz estaltzen dituzte kale guztiak eta *eskaparate* edo erakusleihoak zer esanik

ez. Helburua, nolabait, jendea erakartzea da, dendetan sos batzuk utzi ditzaten. Etxeetan berdin gertatzen da, jaiotza ikusgarriak, apaingarri askotako zuhaitzak...

Hori dena oso polita da, baina non geratu da Gabonetako benetako zentzua? Batzuk oporretara, besteak elurretara, sendi guztia sakabanatuta eta diru pila bat xahutuz opari izugarriak egi-

teko Olentzero, Erregeak, hain modan dagoen lagun ezkutu...

Baina aurtengo Gabonak bereziak dira, krisia izeneko apaingarriz baitatoz. Gazteontzat hitz berria da hori, inoiz ez baitugu izan ezeren faltarik; lehen, ordea, izena ez zuten ezagutuko, noski, baina ziur nago krisiaren ezauzgarri guztiak gehienek jasangarri zituztela. Batez ere, gure

aitona-amonek, hamaika ahalgin egin beharko baitzuten Gabon jaietan mahaian guztientzat janaria osatzeko, krisia baino gehiago miseria ezagutu baitzuten. Lehen aipatu bezala, orduan ez baitzen mahaia apaintzeko ohiturarik, baizik eta jatorduan elkartu, jaki xumeak ere, sendia elkartuz gero, onenak bihurtzen baitziren.

Beraz, aurten eskari bitxi bat egin diezaiogun guztiok Olentzero eta Orientetik datozen Errege Magoei; guztientzat nahiko lana, zoriontasuna eta, nola ez, hain garrantzitsua den bakea.

Saia gaitezen ahalik eta ondoen igarotzen jai haueketa baita urte guztia ere.

Gabon zoriontsuak izan!

MAITANE GARATE

Elizara joan, sendi guztia elkartu, mahai baten inguruan bildu eta jatordu xumea izaten zen lehen helburu bakarra

Gaur, ordea, batzuk oporretara, besteak elurretara, sendi guztia sakabanatuta eta dirua xahutuz...

TXOKOAK ETA JENDEA



Sua Urdanetan

Markeskoa eta Sailkoa baserriak zeharo kiskalita geratu ziren astelehenean sute baten ondorioz. Bertan bizi ziren sei lagunak, Lizaso Aldalur familiako bostak eta aldameneko gizona Aranberri Zulaika, onik atera ziren Imanol Lizaso semeak garaiz konturatu zelako. Abereak, berriz, bertan hil ziren: 90 bat ardi, 5 txerri, behiak eta txahalak eta oiloak.

Goizeko lehen orduetan hasi zen sua eta eguerdi partean oraindik hantzen ahalak azaltzen ziren garrak kontrolatzen aritu ziren suhiltzaileak.

Kontu bat ireki dute Kutxan, laguntza eman nahi duenak egin dezan:

2101 0076 59 0012273835


*Motor txikiekin
arrantzan aritzen
diren herriko
lagunentzako
bilgune gisa sortu
zen Muskuilu
Harria elkarte
duela sei urte.
Aurten bestelako
egitasmo batzuk
jarri dituzte abian;
tartean, Muskuilu
Harria 1. Argazki
Lehiaketa. Sariak
sanikolasetan
banatu dituztela-
eta, elkarteaz
gehiago jakin nahi
izan dugu.*

LORE BERASALUZE

Emango al diguzu Muskuilu Harria elkarteak hasieratik hona egindako bidearen berri?

Muskuilu Harria elkarteak sortu aurretik motor txikiak genituen lagun koadrila bat elkartzen ginen, gure kezkez hitz egiteko. Ez geunden kirol arrantzako arau batzuekin ados —erriotan ontziak edukitzeagatik kobratu egingo zigutela zioen Eusko Jaurlaritzak egindako lege batekin, batez ere— etahan eta hemen kexu ibiltzen ginenez, protesta egiteko elkarte gisa indar gehiago egingo genuela eta, beste herrietan gure egoera berean zeudenekin hitz egiten hasi ginen eta Ostadar elkarteak sortu. Hondarribiatik Zierbenarainoko herri bakoitzeko ordezkariak ziren bilera haietan: gure indarrek fruitua eman zuten; lege hura boletín ofizialean agertu bezain pronto kendu zuten.

Gero, ordea, guztiok elkarrekin biltzeari utzi genion eta Ostadar desegin egin zen.



KARKARA

LUIS AZKUE | MUSKUILU HARRIA ELKARTEKO PRESIDENTEA

“Geronen eta
arrantzaren interesak
defendatzen ditugu”

Eta 2002an Muskuilu Harria sortu zen, bi helbururekin: geronen eta arrantzaren interesak defendatzea.

Bestalde, gurea bezalako Euskal Herriko ia gainerako elkarte guztiak bezala, FASNAPERren (kirol arrantza eta nautika elkarten federazioa) sartuta gaude, arrantzaren eta elikaduraren egoera aztertze-ko ikerketak egiten dituen AZTIrekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinadore lanak egin dituzan.

Jakin-mina piztu dit zuen elkartearen izenak.

Errioren beste aldean dagoen zabalgunea egiteko tapatu zuten harri handi bati deitzen zitzaion Muskulluarri. Marea bizietan ateratzen zen lehorrera, gotik behera, dena muskuiluz josia. Tartean ostrak eta almeja txikiak ere izaten zituen. Moila berriak tapatu zuela-eta, gure koinatak proposatuta, haren omenez izendatu genuen Muskuilu Harria gure elkarte.

Zenbat bazkiderekin hasi zineten?

Dozena lagun ginen hasieran. Orain, berriz, 62 bat gauden. 6 metrotik beherako ontzia dugunok seina euro ordaintzen dugu urtean; hortik gorakoek 12na. Baina ez du xoxik jasotzen gure elkarteak—egiten duguna borondatez egiten dugu—, FASNAPERentzat da diru hori oso-osorik, teoriarik ditugun lege-aholkularitza eta abar ordaintzeko.

Hala ere, ez gaude erabat antolatuta eta estuktura bat eman nahi genioke Muskuilu Harriari: presidentearekin, diruzainarekin... zuzendaritza bat sortu. Horretarako biltzeko leku bat ere behar dugu.

Toki eskaerarik egin duzue?

Udalak bulegoa jartzeko lekuren bat emango zigula agindu zigun bere garaian, baina egia esan, geronek ere ez diogu horrekin matraka asko ematen. Horrek ez du esan nahi behar ez dugunik, faxa duen bilera gela bat eta almazen moduko bat—bi urtean behin berrikusi behar

diren salbamendu txalupak gordetzeko, adibidez—gustura hartuko ditugu eta. 10 metro gehiegi ditugu, ez dugu beste ezer eskatzen.

Instituzioen aurrean indar gehiago egiteaz gain, beste abantailarik ematen al dizuete elkarteak?

Ekonomikoki abantailak ditu; adibidez, autoei bezala, motorrei ere berrikuspenak egin behar izaten zaizkie—5 urtetik behin, plastikozkoei; egurrezkoei 3tik behin—. Nire ontzia, esaterako, txikia izanik, merkeenetarikoa izango da eta elkarteari esker 135 euro ordaintzen ditut; bestela, 200 euro edo gehiago izango ziren.

Bestalde, ahal dugun neurrian, jendea kontzientziatzen saiatzen gara. Lehen, esaterako, motorren olio aldatu eta erriora botatzea arrunta zen; orain, berriz, edukiontzia ditugu horretarako. Aurtengo udan, gure uretan txapiro txikia agertu denean, geroni jardun gara Eusko Jaurlaritzari—arrantza arduratsua egiteko esaten digunari—neurri hori zuten txapiroak arrantzatzea debekatzeko esaten. Azken finean, aldaketa horiek gure onerako dira.

Kirol portua ere baduzue orain. Hala ere, alune asko hartuta daude.

Kirol portua egin zenean elkartearen lana ontziak erriotan uzteko aukera berrmatzea izan zen, motorren jabeek ez gintzatela kirol portuan lekua hartzea derrigortu. Jendeak ez du dirurik kirol portuko tokia ordaintzeko—erriotan uzteagatik ez da ezer ordaintzen—. Lehen, motorrek txanpon batzuk ekartzen zituzten etxera, harrapatutako txapiroak salduta—goizeko ordu txikitik jaikitzen ziren ikasleak, aitarekin txapiro itara joan eta eskola ordaintzen laguntzeko—, baina orain lautik hiruri patrikan zuloa egiten digu txalupak. 300 urteko historian oinarritu ginen ontziak erriotan uzteko eskubidea defendatzeko eta estetika mantentzen den neurrian, errespetatu egingo dutela



agindu zigun orduko arrantza sailburuak.

Bazkideen erdia kirol portura pasa zen eta gainerakoek erriotan jarraitzen dute.

Zerorrek non duzu ontzia?

Kirol portura pasa naiz. 1.200etik gora euro ordaintzen ditut urtean, baina abantaila

asko ditut: Erriotan ez bezala, marea behean dela ere, erraz atera naiteke itsasora. Ura eta elektrizitatea ere bertatik bertara ditut, behar izanez gero. Oso komodoa da.

Hala ere, bada haserre dagoenik. Izan ere, kirol portuan ontzia izateagatik ordaintzen dugun kuotan komunak



KARKARA

eta dutxak sartzen dira, eta horiek egon, badauden arren, ez dira batere egokiak. Elkar-terera kexatzera etortzen da jendea eta guk amortiguadore lanak egiten ditugu.

Bestelako gauzak antolatzen hasi zarete aurten.

Aurten bi egitasmo berri

jarri ditugu martxan: sanpedroetan arrainak harrapatu eta berriz bizirik uretara bota motako lehiaketa egin genuen hurrekin. Gurasoak gehiago saiatzen ziren umeak baino, baina... normala da hori eta oso gustura ibili ginen. Oso balorazio ona egin genuen.

Bestalde, itsas paisajea,

ingurumenaren zaintza eta kirol arrantza gaitzat hartuta, Muskuilu Harria 1. Argazki Lehiaketa antolatu genuen eta orain, sanikolasetan banatu ditugu sariak. Gai bakoitzeko irabazle bana eta bina accessit eman genituen. Itsas paisajeak gaian 17 lagunen 38 lan aurkeztu ziren eta Anjel

Aguerorena izan zen onena, epaileen ustez. Carlos Jimenez eta Joxean Lizarralde jaso zituzten accessitak. Kirol arrantza gaian, berriz, 11 argazkilariren 19 fotografia aurkeztu ziren. Joxean Lizarralde lehen saria eta accessit bat jaso zituen eta bestea Jokin Iriondorentzat izan zen.

HASIERA

“Motor txikiak genituen lagun koadrila bat elkartzen ginen gure kezkez hitz egiteko. Ez geunden kirol arrantzako arau batzuekin ados eta han eta hemen kexan ibiltzen ginenez, protesta egiteko elkarte gisa indar gehiago egingo genuela eta hasi ginen biltzen”

IZENA

“Erriorearen beste aldean dagoen zabalgunea egiteko tapatu zuten harri handi bati deitzen zitzaion Muskulluarri. Marea bizietan agerian geratzen zen uretatik kanpo, goitik behera, dena muskuiluz josia. Haren omenez izendatu genuen Muskuilu Harria gure elkarte”

KONTZIENTZIAZIOA

“Ahal dugun neurrian, jendea kontzientziatzen saiatzen gara, arrantza arduratsua egin dezaten. Azken finean, aldaketa horiek gure onerako dira”

KIROL PORTUA

“Kirol portua egin zenean elkartearen lana ontziak erriorean uzteko aukera bermatzea izan zen, motorren jabeek ez gintzatela kirol portuan plaza hartzera derrigortu. Lortu genuen”

PROIEKTU BERRIAK

“Aurten bi egitasmo berri jarri ditugu martxan: sanpedroetan arrainak harrapatu eta berriz uretara bizirik bota motako lehiaketa egin genuen hurrekin; eta Muskuilu Harria 1. Argazki Lehiaketa antolatu genuen”

JOXEAN LIZARRALDE | IRABAZLEA

3 sari argazki lehiaketan

Joxean Lizarralde oriotarrak Muskuilu Harria

1. Argazki Lehiaketako sei sarietatik hiru eramanez dituzte. Argazkigintzaz eta zaletasunaz aritu gara solasean, hitz eta pitz, eguna ilundu arte.

Gogoratzen al duzu zure lehen kamera? Noiz hasi zinen fotoak aterata eta aterata?

Soldaduskan piztu zitzaizdan argazkilaritzarako harra. Kanariar irletan egon nintzen soldadu, eta han kamerak eta horrelakoak hemen baino askoz merkeagoak ziren. Han nengoela, amak dirua bidali zidan hainbeste desiratzen nuen kamera bat erosteko. Erosi eta han eta hemen ibiltzen nintzen nire tresna berria alboan nuela, klik eta klik.

Harrezkero, bidaiak asko egin ditut—Indian, Nepalen, Turkian... izana naiz— eta argazkiak ateratzeko gogo edo beharra areagotu egin zitzaizdan. Bidaiak bakoitzera 20 bat karrete —700 inguru argazki egiteko— eramaten nituen. Leku guztietan argazkia ikusten nuen nik, baina kontrolatu beharra zegoen, ikusteko nituen guztiak betikotzeko pelikularik gabe geratu nahi ez banuen behintzat. Orain, kamera digitalak ditugula, 700 horiek egun batean botako nituzke.

Ezkondutakoan albo batera utzi nuen pixka bat argazkigintza. Afizioa banuen, baina... Orain, aldiz, jo eta ke ibiltzen naiz atzera eta aurrera beti, argazki makina poltsan dudala. Orain ere, patrikan gordeta daukat, badaezpada ere. Ordezko batera bat ere beti daramat nirekin eta 4 gigako tarjeta ere bai, jakina. Nola ez?

Zenbat kamerapasa diruzure eskuetatik?

Analogikoak ez dakit, baina digitalen artean, hau hirugarrena dut; aurrenekoa, duela zortzi edo hamar bat urte erosiko nuen. Iazko sanikolasetako argazki lehiaketan bigarren saria irabazi nuen eta han eskuratutako diruarekin erosi nuen azkeneko digital konpaktua, orain dudana. Muskuilu Harriako 1. Argazki Lehiaketako hiru sarietatik bi —kirol arrantza ataleko accessita eta itsas paisajeak-ingurugiroaren zaintza ataleko lehen saria lortu dituztenak— makina horrekin ateratu ditut.

Digitala ala analogikoa nahiago?

Digitalak ikaragarri aukera pila ematen ditu: argazkia aterata, ikusi, hau kendu, beste jarri. Baina, niri, hala ere, argazki naturalak gustatzen zaizkit. Kamerarekin ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz, gero ordenagailua ahalik eta gutxien erabiltzeko.

Zer nolako argazkiak ateratzea gustatzen zaizu?

Paisajeak asko gustatzen zaizkit eta mendira joaten naizenean argazki dezente ateratzen ditut.

Bestalde, semea Eibarko Arrate eskubaloi taldean jokatzen ari da aurtengo eta partiduen argazkiak aterata eta nire blogean —www.picasa-



Itsas paisajeak-ingurugiroaren zaintza ataleko 1. saria | J. Lizarralde



Itsas paisajeak-ingurugiroaren zaintza ataleko accessita | J. Lizarralde



Kirol arrantza ataleko accessita | J. Lizarralde

web.google.com/JOXEAN-BIXKI— zintzilikatzen ditut, nahi duenak ikusi eta jaitsi dituzten.

Jendeak argazkiak ateratzen nituela ikusi eta eskatu egiten zizkidan. Argazkiak ikusi, CDa erosi, argazkiak horra pasa, lagunari deitu argazki bilduma jasotzeko... lan gehiegi eta beharrezkoa ez dena, gainera. Helbide elektroniko horretan zintzilikatuta praktikogoa eta erosoagoa da niretzat.

Txapelketa askotan hartu al duzu parte?

Iazko eta aurtengoan

Nikolas festetako lehiaketara eta duela bi urte National Geographicek antolatutako beste batera aurkeztu ditut nire argazkiak. Azken horretan finalera pasatzealortu zuen nire fotoak. Erle bat zen polen bila zihoala, airean. Polena eta erlearen antena aterata ziren enfokatuta.

Zer azpimarratuko zenuke argazki batean?

Nik garbitasunari ematen diot garrantzi handiena, argazkia argi ikus dadila. Orain, berriz, argazkiak mozteko teknikak lantzen ari naiz, detaileak oso gogoko baitituzte.



fotoetan. Dena beteta, gauza pila bat dituen argazki bat kaos bat da niretzat, nahaste borratea, gehiegi. Argazkirik arruntena, sinpleena da askotan niretzat onena.

Muskuilu Harriak antolatutako argazki lehiaketara etorri, berriz, non atera dituzue sarituak izan diren argazkiak?

Lehen saria lortu duena hondartzara paseoan nindola atera nuen, goiz batean. Lainotuta zegoen erabat eta arranplako horretan txunditurik geratu nintzen ikusten ari nintzenarekin. *Zein poli-*

ta! esan eta argazkia atera nion, goiko hori.

Bigarrena, berriz, Donostiara lanera nihoan goiz batean atera nuen. Goizero-goizero Botalekuko inguruan dagoen motor bati begira geratzen nintzen. Egun horretan, egunsentian, autoa apartatu, argazkia atera eta lanerako bidea hartu nuen, berriz.

Hirugarrena, aurtan atera dut. Nire urtebetetze egunean emazteak piragua bat oparitu zidan eta hura estreinatu nuen egunean —egia esan, behin bakarrik ibili dut, oraingoz— atera nuen argazki hori, Donpernasan. Kamera tuper

batean sartuta eraman nuen, ez bustitzeko.

Sei sarietatik hiru eskuratu dituzue. Ez da marka makala.

Egia esan, bai. Ez nuen horrelakorik espero. Baina argazkigintza oso subjektiboa da.

Anaia ere argazkizalea da, ezta?

Bai, bai. Anaiari ere beti gustatu izan zaio argazki mundua. Elkarrekin lanean aritzen gara. Nikateratako argazkiak berari erakusten dizkiot, iritzia eman diezadan; eta alderantziz.

Lankide bat ere badut, aholkuak ematen dizkidana. Muskuilu Harriako lehiaketara aurkeztera nindoa argazkiak erakutsi nizkion eta sarituak izan diren hiruetatik bi gustatu zitzaizkion. Bista ona dauka.

Eta etxeokak?

Denak sartzen ditut argazkien jokoan. Iritzia eskatzen diet sarritan, bai semeei eta baita emazteari ere. Andrea izaten da, gainera, lehiaketara aurkeztera animatzen nauena, manager lanak egiten dituen. Helburua lortzen ari da pixkanaka.

ADARRETATIK HELDUTA

Krisia?

Esku artean liburu bat dut. Izenburuak, euskaratuta, honela dio: *Krisia, hazkunderako aukera*. Ez noa hemen teologia liburu mardul honen laburpena egitera, eskolan bezala; izenburua bakarrik aipatu nahi dut, iradokizun askokoa delako, probokatzailera.

Krisiak zoraturik dauka jendea. Beldurturik. Kapitalismoaren eskutik utzita, bakarrik. Ez da harritzekoa. Unibertsoari begiratu besterik ez dago: planeta, konstelazio, molekula... guztiak elkarren harremanean bizi dira, elkarren laguntzan, orekan. Elkarren laguntza da harremanaren oinarri, eta ez doakio gaizki, milioika urtetan dabil martxan.

Elkarren harremanean bizi diren gizon-emakume-ekzergatik dute, ordea, hainbeste ezin, hainbestearinoko krisi? Esango nuke kooperazioa ez, baizik-eta norgehiagoka delako gure munduaren harreman-oinarria. Beraz, norgehiagokan bizi garenez, goian aipatu dudan izenburu txukun horrek buru haustea sortzen dit: Krisia, hazkunderako aukera, lehen ere handiak ziren hazteko, alegia? Hala izango dela uste dut, ez ezkorra naizelako (baikortzat baitut nire burua) errealitateari begiratu besterik ez dagoelako baizik.

Ziur nago, krisi honen amaieran (amaierarik badu) lehen aberats zirenak, sendotuak aterako direla hazkunderako aukera ondo



UNAI MANTEROLA
APAIZA

Krisiak zoraturik dauka jendea. Beldurturik. Kapitalismoaren eskutik utzita, bakarrik. Ez da harritzekoa

aprobetxatuta. Eta ez da broma. Ordenagailua korapilatzerainoko pilan etortzen diren e-mail horietako batean irakurri nuen munduko Estatuak bankuei eman behar dieten dirua, lurreko biztanle guztien artean banatuko bagenu hamalauna milioi pezeta tokatuko litzaizkigukeela (pezetatan nabil, elizako zakuan dezente azaltzen baitira oraindik). Norbaitek esan dit kalkulua ez dagoela ondo aterata, baina berdin zait, dena den diru

asko. Pobrerikez, denak aberats. Ez da horrelakorik izango. Bankuei emango zaien dirutik ez dugu xentimorik ikusiko. Norbaitek bai: hurrengo krisia ere sortuko dutenek, alegia. Kafea hartzeko adina badut oraindik, ez nadila kaferik gabe geratu, ez daitezen beste batzuk konbertsazio gairik gabe geratu. Hara! Nire izena edo jarduna elkarrizketa gai gertatzen den bakoitzean komisia jasoko banu... behar bada osatuko nituzke nire hamalau milioiak. Kontatuko dizuet.

Krisi ekonomikoa utzita, ez al da gurean bestelako krisirik, aukera gerta litekeenik? Baietz uste dut. Gazteriaren lanerako gogoa eta ezina aukera ematen duen krisia dela sumatzen dut. Ez dute biltoki egokirik oraingoz. Baina lanerako gogoa bai. Ikusi besterik ez dago Orioko azken festetan gazteek egin duten lana. Krisia, prekarietatea, hazkunderako aukera gertatu zaie. Ea beste aukerak ere lantzen diren. Proba egitea nahiko nuke.

Planetak kontenplazera noa orain. Horiek ez diote elkarri ezer kentzen. Elkar eusten diotela dirudi. Agian horietako batean lur-sail bat erosi beharko dugu. Burbuja inmoiliarioritik kanpo. Hau lehertzen bada aterako duen kiratsak Kiotorekin ere akabatuko du eta. Planetei begira kafetxo bat beharbada, hizpide, hazkunderako aukera gerta dadin.

NIRE HONETAN

Gau on zoriontsuak

Din, dan, don, Eguberri on! — a, ez! Orain Alaken, alaken! da. Ume guztiek ate ondoan horixe kantatzen dute eta—Gabonak ailegatu dira. Codorniu eta Freixeneteko burbuilek egunak daramatzate piura horrekin telebistako tarte guztiak betetzen. Bizpahiru hilabete badira, publizitateko buzoian jostailuen propaganda-liburuak egunero aurkitzen ditudala. Martxa honetan, udan DYAKo sorosleek bainujantzi eta borladun txapela gorriekin artatuko gaituzte, eta trineoan eramane ospitalera erdi itota gaudenean. Hou, hou, hou!

Erregeak eta Olentzero ere laster jarriko dira bidean. Ala ez. Agian aurtengoan zakua ez dute hain beteta ekarriko —magoei eta majoei ere eragiten die krisiak—, pisu gutxiago izango dute bizkar gainean eta ez dituzte hainbeste egun beharko gure etxeetara iristeko.

Egunotan ikusiko da krisiaren eragina. Itxura ala errealitatea? Eskatu, erosi, eskatu eta erosi, albokoak ez dezan nabaritu errege probreak ditugula aurtan; edo gauza guztiek alde ona dutela sinistu eta Olentzero eta Erregeei deskantsua emanaz, behingoz, gehiegikeriarik eta oparirik gabeko festak ospatzen hasi.

LORE BERSALUZE

MA*NA lokutorioa

Endia enparantza, 1
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Tel/Fax: 943 13 50 82
loca-mana@euskalnet.net

LURDES
TRINIDEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

LOBETXU JATEPERA

Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

MOILA BAZTERRETIK

Herri informazioa jomuga



AIORA LARRAÑAGA

Inor konturatu al da, Orioko eta oriotarron berri munduko edozein txokotan bizi den edonork izan dezakeela? Hori orain dela zenbait urte pentsaezina bazen ere, gaur egun errealtatea da; baina, herriko kon-

tuak lau haizetara zabaltzeko prest al gaude oriotarrok?

Orain dela hiru hilabete eskas hasi naiz Orioko berriak zuen etxeetara egunero iritsi daitezten lanean eta gezurra badirudi ere, hilabete hauek guztiz aldatu zait herriarekiko ikuspegia. Esate baterako, ez nuen inoiz pentsatuko, inoregunkari edo aldizkari batean argitaratutakoaren errua albistea idatzi duen kazetariari botatzeko gai izango zenik. Edota, alderdi politiko batek, besteren bati buruzko adierazpenen bat egiten duenean, irainduta sentitu denak kazetariari albistea argitaratzearen errua bota ziezaiokeenik ere.

Bi hilabete behin, nire iritzia emateko tartetxo hau izaten dudanez, oriotar guztiei hurrengo argitu eta

gomendatu nahiko nieke: Normalean herritarren batek irakurri duenaren inguruan desadostasunen bat duenean, errazena egiten du: beroan, zertan ari den pentsatu ere egin gabe, kazetariarengana joaten da zuzenean bereak eta asto beltzarenak esatera. Baina, argi izan behar dute herritarrek guk kazetariok, iritzi artikuluetan ez bada, ez dugula inoiz gure iritzirik ematen. Gure lana gainontzekoen esanak edo adierazpenak zabaltzea da. Ezin dugu ezer asmatu, ezta gai bati buruzko baloraziorik ere. Soilik besteek diotena azaldu behar dugu; horregatik, kritikak jaso dituztenek edota irakurri duten zerbait gustatu ez zaien kazetariari errua bota eta berak adierazpenik egin nahi ez duela adierazi

Irakurri duenarekin ados ez egon eta errazena egiten du jendeak: beroan, bi aldiz pentsatu gabe, kazetariarengana joaten da bereak eta asto beltzarenak esatera

beharrean, gai horrekiko duten iritzia azaldu beharko luketela iruditzen zait. Ez ahaztu: informazioaren gizarte honetan isiltzen eta ezkutatzen denaren iritzia ez du inork jakiten; beraz, gainontzekoentzat ez da existitzen.

Orioko Herri Ikastola

IKASTOLAK ondorengo soslai duen irakaslea behar du amatasun ordezkapena betetzeko urtariletik aurrera:

- Magisteritzan diplomaturia Lehen Hezkuntzan..
- EGA.

Curriculumak helarazteko azken eguna abenduaren 16a.
Informazio gehiago ikastolako web orriaidean:
www.oriokoikastola.net
Postaz: Orioko Herri Ikastola. Abesten 8, 20.810 ORIO.
E-mailez: orio@ikastola.net
Faxez: 943 130938

 **kutxa**

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00



islada
estetika zentroa

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Eskuren kalea, 2 (bidea) Oriko zentroa
Tf: 943 131 836
e-maila: isladaorrio@hotmail.com

Lizaso dekorazioa



Eusko Gudari, 46
Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 83 87 81

KOLON TXIKI
sukriptuak
jabetza



Herrillo Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañ Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

Elkartasun tonbola

Gabon giroan sartu gara, eta 24a iristeko egun gutxi falta dira. Umeak, irrikaz daude Olentzero ikusteko. Badira 2 urte, abenduaren 24an, ume-egabon kantak abestuz Orioko kaleak alaitzen dituzten bitartean, guk, DBH4ko ikasleok, elkartasun tonbola antolatzen dugula herriko plazan.

Tonbolak bi helburu ditu: Ruandako ikasleei laguntza ematea eta ikasketa bidaiarako dirua lortzea. Aurretik herriko komertzioetatik pasa gara eta gehienek, borondate onenarekin, opariak eman dizkigute. Baina lan hori, sari ikaragarri baten trukea da; tonbolan lortutako diruarekin, Ruandako ume askoren aurreprietan irribarre bat sortu eta ikasketa bidaiarako diru zati handi bat lortu dezakegu.

Ekintza hori antolatzeko, jende askok lagundu digu, trukean saririk lortu gabe.

Gure eskerrik beroenak eman nahi genizkieke horiei, batez ere, herriko komertzioei.

Etazergatik Ruandara? Ba, ikastolako irakasle ohi zen Demetrioren anaia, hara joan zen eta harekin harremanetan jarrita hara bidaltzen da dirua. Hango umeekin ere harremanetan jartzen gara, esku-titzen bitartez. Asko eskertzen dute gure laguntza, egoera nahiko txarrean bizi baitira, gurekin konparatuta betiere.

Gure elkartasun tonbolara gerturatzeko gonbita zabaldu nahi genuke. Bertan, sari ikaragarriak egongo dira: otarrak, gosariak, ardo botilak, apaingarriak... Etxera opari batekin joateaz gain, zuetako bakoitzaren laguntza txiki batekin, milaka umeen bizitza hobetuko dugu. Ekintza zoragarria, ezta? Beraz, goizgoizetik herriko plazan ikusiko garelakoan gaude. Aldez aurretik, eskerrik asko!

ORIOKO HERRI IKASTOLAKO

DBH4 KO IKASLEAK

Ez gaude salgai!

Bai, bai eta bai. Hori da beti esaten digutena; eta dena gezurra. Irailaren 26tik ari gara udal ordezkariekin gaztetxearen sorrera negoziatzen. Makina bat aldiz erakutsi nahi izan digute gaztetxearekiko borondate ona badutela, baina inoiz ez dute konpromisorik hartzen. Hitzetan joaten zaie indarra, eta ekintzak diru irabazietara soilik bideratzen dituzte. Eta noski, nolatan gastatuko dute, bada, euro nazkagarri bat bera ere gazteongan? Udalak urte asko daramatza Jaurlaritzatik gazteriari bideratzeko diru laguntzak jasotzen, 2009an ere 15.000 euro jasoko ditu, baina guk ez ditugu usainduko.

PNVk 2009rako egindako aurrekontuetan, arraun kluba berritzeko 1.947.000 euro emango ditu, inork eskatu ez dizkien *Orion* *Jai* eta *Orio estilora* jaientzat 100.000 euro bien artean —herriko eta

auzoetako jai guztiei baino 10.000 euro gehiago—, Gabonetako argiterian soilik 20.000 euro, lorategien mantenuan 183.310 euro, Iturriaga erai-kina lau turistentzat eraberritzea 525.954 euro, eta horrela amaigabeko zerrenda.

Ba al dakizue zenbat eskainiko liokeen Udalak gaztetxeari PNVren aurrekontuak onartuz gero? zero. 0 euro. Euro puta bat bera ere ez. Nahikoa da, ez guri adarrik jo.

Asteartean bozkatuko dira aurrekontuak, abenduaren 23an, eta zinegotzi guztiei gauza bat bakarrik eskatu nahi diegu: gazteria kontuan hartzeko. Etorkizunaz gain oraina garelako, mesedez, bozkatu ezetz gazteria bazterten duten aurrekontuei. Gaztetxea nahi dugu, behar dugu-lako. Horregatik, herritar guztiak ditzen ditugu asteartean, 18:30ean, plazan egingo dugun kontzentrazioa.

OKK GAZTE ASANBLADA

TORREALDAY
aholkularitza

Agentea: Olariaga

Berezitasunak:

- ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
- ✓ Aseguru artekaritza.
- ✓ Finken administrazioa.

Borobide 4, behean. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 99 www.atctorrealday.com e-mail: olariaga@olariaga.com

Dorronoro Denda

1961etik zure enpleguan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

AMILIBIA
ENTZIE LAK, S. L.

larri pertsonen produktu eta instalazioak

guzi eraldako lekuetarako arazo-ontak

Olaskoegia, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Euzko Gudari Jailegi 13-15
ORIO
943 63 38 75

Fareoko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutuziak

Euzko Gudari, 5 - Tel. 943 26 87 74 - Orio

HAIZE BERRI
tokeko-jateko-kafetegi

Plater konbinatuak,
bakatak,
hamburgerak,
rustoak,
eguneko menua...

eta etxera eramaitako zerbitzua!

Orio, Euzko Gudari, 1 - Tel. 943 83 16 22 - Auzoaren gainean dago



Gozategitarrak

Hogeita hamar bat urte omen ditu goiko argazki horrek. Esan beharrik ez dago, Gabonak zirela, eta haur horiek zein familiatakoak diren ere nahikoa agerian dago, ez baitira ordudandik askotxorik aldatu: gozategitarrak.

Gabon egunean, kalez kale, Zaragueta eskolako gainerako irakasle eta ikasleekin eskean jardun

ondoren, gurasoek Ramiro argazki denda aurrean itzaroteko esan omen zien eta txintxo-txintxo aitaren eta amaren esana betetzen ikus daitezke laurak jarrita fotoan. Kostako zitzaien argazkia ateratzeko aurrera begira egotea, orduan Ramirok jostailu mordoa baitzituen erakusleihoan eta begiak hara joatea errazagoa.

Anai-arreba guztiak osatzeko, Joakin anaia

zaharrena falta da, baina hura bere lagunekin izango zen.

Ezkerretik eskubira, hauexek dituzue goiko haurrak: Jose Manuel, Gaizka, Nerea eta Amaia Gozategi.

ARGAZKIA: ARTXIBOA
INFORMAZIOA: AMAIA GOZATEGI

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

edutegia
ANTILLA
jittelaceu
Auzolan Kalea, 2 - 48100 BILBO
Tel: 943 83 10 57

Kinokladenda - Uma arropa
argine
www.lasone.com/argine
Tel: 943 13 48 89
25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

ARKAITZ
Taberna
Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogitarleko mundialak
ABESLABI KALEA, 4
Tel: 943 83 10 57

KRITIKA



Manuelen idatzi eta bertso askotan aiarren eta oriotarren oso gertuko errealitatea agertzen da.

KARKARA

Manuel Lasarteren bizitza eta obra liburu eder batean

Liburuaren egileak, Iñaki Zubizarreta azpeitarrak, ezagun du adiskide duela Manuel Lasarte, maite duela. Maitasunak dakar ezagutza eta ezagutzak maitasuna, eta Zubizarretak ondo ezagutzen du Lasarte, gizona, bertsolaria eta artista handia. Gertutasun horretatik idatzi du liburua: *Manuel Lasarte, Iturria ondare*.

Iñakik Lasarteren antologia eder bat plazaratu du, Manuelen bizitzako gorabeherak eta haren idatziak eta bertsoak primeran uztartuz,

modu koherente eta egokian antolatuta. Borobiltzeko, artistaren eta obraren gaineko gogoeta argigarria erantsi dio.

Manuelek bertsoan erabilutako errimak eta neurriak goraiatuak izan dira beti. Teknika hori, gainera, beti oinarritu du hizkuntzaren ezagutza sakonean eta erabilera ederrean. Liburuan hori ere aztergai du Zubizarretak, eta Manuelen hitz eta esapide esanguratsuenen zerrenda aberatsa eskaini digu, adibide ederrekin.

Liburuarekin batera CD

bat ere bada. CDan Manuelen 14 bertso sorta, bere abotsean. Nahikoak, konturatzeko Lasarte aparteko bertsolaria izateaz gain, oso kantari ona dela eta doinu eder asko ezagutzen dituela.

Liburua eta CDa bide polita dira Manuel Lasarteren bizitzan eta obran zehar ibilaldi atsegina bat egiteko.

IÑAKI ITURAIN

IKASLEAK IDAZLE



ANE SANTOS | DBHKO 4. MAILA

Autobus geltokia

Egun, edozein herritan autobus geltoki bat baino gehiago daukagu. Orion ere, egon badaude: Anibarko Portuan, eta herriko sarreran. Baina Ortzai inguruan bizi den jendeak ere, normala den bezala, autobus geltokia han jartzea eskatu dute.

Eskatu zutenetik bidearen alde batean geltokia jarri arte denbora luzea pasa da, baina ez da nahikoa Zarautzik Donostiara joateko aldean jartzea, bietan jarri behar da.

Orioko jendea, oso sakabanaturik bizi da eta dauzkagun geltokiak gehienei oso urruti geratzen zaizkigu. Ez da lan handia etxearen ondoan errepidea badago, geltoki bat jartzea horrelakoetan. Jendeak eduki dezala zairen bat autobusaren zain dagoen bitartean eguraldi txarra egiten duenerako, eta autobusak ikus dezan jendea non dagoen.

AUTOAK AUKERA ONEAN

Telefona: 943 13 04 38

iñaki argazkiak caperochipi

ezkontzako asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

Gabon

TABERNA

Plater konbentzionalak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Aberriko Industrialdea
943 83 08 45 / 619 60 23-35
ZARAUTZ

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Gauza bat da Baldorban edo Erronkarin euskararen eguna antolatzea; leku hauetan aspaldi galdu zuten hizkuntza, eta badu justifikaziorik bertako jendeari sustraiak non dauden gogorarazteak. Baina euskararen eguna, adibidez, Orion antolatzen bada, kezkatzeko modukoa da. Orion euskara ez al da eguneroko kontua? Horrek kezkatzen nau... Euskara sinbolo ia huts bat gehiago bezala ikusten badugu, egun batekin ospatzeko modukoa, gaizki gabilta.”

XAMAR

Idazlea
www.elgoibarren.net
2008/12/02

OSPAKIZUNA



Odola emateagatik sariak

Orioko eta Aiako bederatz lagunek Odol Emaileen Ordezkaritzak emandako intsigniak eta diplomak jaso zituzten, urrian. Odola 25 aldiz emateagatik M. Atxega, M. Etxeberria, M. Larreta, M. Lizarralde, T. Lizarreta, K. Luloaga, I. Sarasua eta J. Lertxundi saritu zituzten; 40 aldiz emateagatik, berriz, A. Aranburu.

Orion odola emateko hurrengo hitzordua abenduaren 22an izango da, 18:30etik 20:30era, anbulatorioan.

ZORITXARRAK!



Karkarari!

Urtea luzea egiten da eta negua hain goiz hasi dugun honetan zer esanik ez. 365 egun, 8.760 ordu, 525.600 minutu, miloika segundo: krisi urtea astuna izango da. Guztion onerako izango delakoan, 2009a zertxobait moztea erabaki dugu. KARKARAKOOK: martxoak eta azaroak nahikoa dute 29na egunekin, eta konforma dadila 30ekin abuztua. Oraingoz mozketa txiki horrekin moldatuko garela uste dugu, probatzeko. Beharbada, 2010ekoak 350 egunetara jaitsiko dugu.

Bromak alde batera, a zer nolako hanka sartzea kaleratu dugun egutegian.

Barkatu...

Abenduaren 13tik aurrera
%30-50 MERKEAGO



Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO
www.lasonet.com/ardatza

Igande goizetan ere zabalik
abenduaren 21ean, 28an eta urtarrilaren 4an

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Aita Lertxundi 33 behean - ORIO
Autobus parada ondoan

Automóviles ZARAUTZ
CITROËN ZERBITZU OFIZIALA
Viziala berririk eta 10000 kilometro
ZARAUTZ. TEL. 943 13 13 50

Igo zaitoz haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149932
galerna.orio@hotmail.com

ORAIN DELA 25 URTE

Durangoko liburuen erdia baino gehiago euskaraz

Jorge Oteiza ez da hil. Horrela zioten garai hartako egunkarietako titularrek, 1983ko abenduaren 8an, Jorge Oteizak *Ejercicios espirituales en un tunel* argitaratu eman zuenean. 1965ean idatzitako arren, Durangoko 18. liburu eta disko azokan aurkeztu eta oso harrera ona izan zuen.

Urte hartako Durangoko azoka berezia izan zen euskal literaturarentzat, hara eramandako 700 liburu eta diskoetatik 387 euskara hutsean baitziren, aurreko marka guztiak gainditu eta ordurarteko kopururik handiena.

Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrenean* *aidanez* izan zen 1983ko euskarazko liburuik salduena, ia 10.000 ale, eta Euskal Gobernuak saria irabazi zuen.

ESKULTURA LAPURRETA

Abenduaren 23an Jorge Oteizaren *Malevich* eskultura lapurtu zuen Euskal Artisten Elkarteak Bilboko Arte Ederren Museotik, hiri hartako kultur eskaintza gabezia salatzeko. Egun berean, 12:30ak aldera, Bilboko Udaleko kultura zinegotziaren bulegora itzulizuten. Euskal kulturaren alde Oteizak egin zuen lanagatik erabaki zuten haren lana lapurtzea.

SAN NIKOLAS HERRIKOIAK

Txistularien, erraldoien eta buruhandien kalejirarekin hasi ziren 1983ko sanikolasak

**1983
ABENDUA**

**Angel Lertxundiren
Hamaseigarrenean
aidanez izan zen
1983ko liburuik
salduena**

**Abenduaren 23an
Jorge Oteizaren
Malevich eskultura
lapurtu zuen
Euskal Artisten
Elkarteak**

**1983ko sanikolasak
—orduan
arrantzaleen
festak ere esaten
zitzaie—,
abenduaren 3an
hasi ziren**

—orduan arrantzaleen festak ere esaten zitzaie—, abenduaren 3an, larunbatarekin.

Abenduaren 4an, goizeko 08:30ean txistularien dianak

esnatu zituen herritarrak eta gero maratoia esaten zitzaion korrika lasterketa egin zuten. 11:30ean, arrantzaleen aldeko meza egin zen, eta horren ondoren, helduentzako hamaiketako. Bazkal ostean, haurrek antzerkiak gozatzeko aukera izan zuten eta 19:30ean Incansables musika taldearekin dantzaldia izan zen. Goizeko ordu bietan sokamuturra izan zuten herriko gazteek eta Zaharren Babes Lekuan mus txapelketa egin zen.

Abenduaren 5ean, Arrantzale Egunean, 11:00etan, sardina jana egin zuten plazan eta arrantzaleen arteko sokatira ondoren. Arratsaldeko 16:00etan, arrantzaleen arteko estropada jokatu zuten traineruekin. Ondoren, herri jokoak eta Egan taldeak alaitutako dantza saioa izan ziren. 02:00etan, gazteek sokamuturra izan zuten.

San Nikolas egunez, abenduaren 6an, goizean, meza nagusia, pilota partida eta bazkari ederra egin zituzten. Iluntzean Akelarre taldea izan zen plazan.

Festa giroak hurrengo igandera arte iraun zuen, egunkarietan jartzen duenaren arabera. Beraz, 1983ko festa programan ikusi dugun moduan, festa luzeak eta herrikoiak izaten ziren negua hasi aurreko sanikolasak, lanak bukatu eta etxean ziren arrantzaleen festak.

JAIOTAKOAK

- Martin Daly Brazo, Orion, abenduaren 3an.
- Adei Salsamendi Martin, Orion, azaroaren 29an.
- Irati Olaizola Olaskoaga, Orion, azaroaren 19an.

EZKONDUTAKOAK

- Asier Iburguren Iburguren eta Arantxa Zubieta Andueza, Orion, azaroaren 29an.

HILDAKOAK

- Manuela Otxagabias Torre, Donostian, abenduaren 14an. 74 urte.
- Maritxu Arruti Goikoe-txea, Orion, abenduaren 9an. 81 urte.
- Dionisio Eizagirre Adu-riz, Orion, abenduaren 8an. 88 urte.
- Anttoni Lizaso Salsamendi, Orion, abenduaren 8an. 84 urte.
- Jose Ibarrola Iruretagoiena, Aian, abenduaren 3an. 79 urte.
- Justina Oliden G. de Txabarri, Orion, abenduaren 1ean.
- Feliciano Insausti Mugika, Orion, azaroaren 30ean. 88 urte.
- Jon Iraola Manterola, Iruñean, azaroaren 30ean. 73 urte.

Jon Iraola Manterola

zenaren arimaren aldeko meza izango da 2008ko abenduaren 21ean, 12:00etan, Orrioko elizan.

Szarra **ERREBELATU DIGITALA**
MOMENTUAN

ESKAINTEK
HARRITUKO
ZAITUZTETE
ETORRI!

TREN 21

Bideo Produksioa



Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

ANTONIO HERNANDEZ | TXURROGILEA

“Herriari itxura aldatu zaio, baina jendea berdina da”

Antonio Hernandez du izena eta Merche txurreriko nagusia da aguraindarra, txurroak egiten 30 urteko eskarmentuarekin. 24 urtez jarraian ez du hutsik egin sanikolasetan eta gure artean izan dugu. Umore alaiarekin hartu gaitu denetik hitz egiteko.

Datorren urtean 25.a izango duzu gurean. Zerbait berezia prestatzeko asmorik? Deskonturen bat edo...

Egia da, 2009an 25 urte beteko ditugu jarraian Oriora etortzen eta ospatzeko aukera egokia da. Seguraski egun bereziren bat prestatuko dugu, txokolate jana txurroekin edo. Deskontuarena ez dakit, ikusiko dugu.

Zer du, bada, Oriok urtero hona etortzeko?

Zoritxarrez, beste inon ez dela festarik. Garai honetan Orio da inguruan jaiak egiten dituen herri bakarra; bezero asko ditut eta ongi zaindu behar dira. Etortzen jarraitzeko asmoa dut.

Txurroak jateko ohitura badago orduan?

Hemen oso gustuko dira txurroak, goizetan batez ere. Urte sasoi honetan hotz handia egiten du eta ederki asko datorkio gorputzari. Txokolate beroa ere saltzen dugu, gainera.

Eta 24 urte horietan asko aldatu da Orio?

Nik uste dut ezetz. Tira, herriari fatxada aldatu zaio, baina jendeak berdin-berdin jarraitzen du. Betiko bezeroak ditugu, lagun asko, poteoan ibiltzen gara... bertakojendea oso jatorra da. Ez dugu inongo kezarik.



Antonio sanikolasetan txurroak prestatzen.

KARKARA

Normalean jai batzuetatik besteetara mugitzen gara eta ibilbide bera jarraitzen dugu beti

Nola egiten dira txurro goxak, puntu-puntuak?

Ez dizuet sekreturik kontatuko. Ogi-irin, ur eta gatz kantitate zehatza bota behar zaio, besterik ez. Baina ez da horren erraza, neurriren bat aldatuz gero, ez dira berdin ateratzen. Olioak ere oso bero

Urte sasoi honetan hotz handia egiten du eta txurroak jatea ederki asko datorkio gorputzari

Egon behar du, bestela egosi egiten baitira.

Inoiz inor kexatu al zaizu ba?

Bai, bueno, korrika eta presaka bagabiltza gatza ahaztea, adibidez, gerta liteke, baina jendearekin konfiantza dugu eta abisatzera etortzen dira.

Konpetentzia...

Feriantek beti errespetatzen dugu elkar. Konpetentzia badago, noski, baina ni hona banator ez da beste inor etorriko eta nik ere berdin egiten dut besteekin. Normalean jai batzuetatik besteetara mugitzen gara eta beti ibilbide bera jarraitzen dugu. Oriotik Bilboko Gabonetako haur parakera goaz.

Baina otsailean berriro itzuliko zarete, ezta hala?

Ez gara urtero itzultzen, baina aurtengoan uste dut baietz; intentzioa badugu behintzat. Esan dudan moduan, beste inon ez dira festak, baina garai ona da txurroak jateko. Orioko Udalak partzelatxo bat uzten digu hilabeterako, eta gu gustura etortzen gara. Eskertzekoa da Orion jasotzen dugun tratua.

Zergatik du izena Merche txurreriak?

Izen bat jarri behar zitzaion eta hori bera aukeratu genuen eta orain ez dugu aldatzeko intentziorik, dagoeneko herri askotan ezagutzen baikaituzte. Beste modu batean esanda, egunen batean beste izen batekin agertuko bagina jende askok ez gintuzke ezagutu ere egingo. Esperientzia eta izen ona dira aurrera egiten laguntzen ditutenak.

Eta krisia nabari al da salmantan?

Ez, aurtengo sanikolasetan beste urteetan baino lan gehiago egin behar izan dugu; eguraldi patala izan dugu, euria eta hotza, eta behar bada horregatik joan-etorri handia ibili da txurroak erosteko. Egun bakarra izan zen flojogoa. Dozena bat txurro erosteko beti dago dirua.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:14	06:44	07:14	07:44	08:14	08:44	09:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koadro argidun orrietako autobusak urbiarik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gaztiak pasatzen dira. Koadro lanetako orriak larriabaitako (laneguna) zerbitzuak bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio orriko autobus zerbitzuak Landabusek darima. Zerbitzuaren buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude:

www.landabus.com

Tf: 943 24 01 14

sme-a 5360 zenbakia

ITSASOA

ABENDUA	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
20	10:42 eta 23:23	04:10 eta 16:56	
21	11:51 eta	05:18 eta 18:01	
22	00:28 eta 12:58	06:26 eta 19:03	
23	01:26 eta 13:56	07:28 eta 19:57	
24	02:16 eta 14:45	08:22 eta 20:43	
25	02:59 eta 15:26	09:08 eta 21:24	
26	03:38 eta 16:03	09:49 eta 22:01	●
27	04:13 eta 16:37	10:26 eta 22:35	
28	04:47 eta 17:09	11:00 eta 23:09	
29	05:20 eta 17:41	11:34 eta 23:42	
30	05:54 eta 18:14	12:07 eta	
31	06:29 eta 18:48	00:15 eta 12:40	
01	07:05 eta 19:24	00:52 eta 13:16	
02	07:45 eta 20:05	01:28 eta 13:56	
03	08:29 eta 20:52	02:10 eta 14:40	

ZAINTZAKO BOTIKAK

ABENDUA

- 19an, Larrañaga.
- 20an eta 21ean, Mutiozabal
- 22an, Azaldegi.
- 23an, Zulaika.
- 24an eta 25ean, Larrañaga.
- 26an, Mutiozabal.
- 27tik 31ra, Lasa.
- 01ean, Mutiozabal.
- 02an, Lasa.
- 03an eta 04an, G. Artiñano.
- 05ean, Iriarte
- 06an, Etxeberria.
- 07an, Mutiozabal.
- 08an, Larrañaga.
- 09an, G. Artiñano.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.
943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.
943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.
943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17.
943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea
943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz

FESTA OTABALDARRA

■ Abenduaren 30ean eta 31n, Ekuadorko Otabaldar indigenek urte bukaerako festa egingo dute Zaragueta eskolan:

■ Abenduaren 30ean, inaugurazio ekitaldia, 14:00etan; areto futboleko eta saskibaloiko taldeen desfilea, 14:15ean; talde bakoitzeko amandreen izendapena eta sari banaketa, ondoren; areto futboleko eta saskibaloiko partidak, 15:00etan.

■ Abenduaren 31n, areto futboleko eta saskibaloiko partidak, 08:00etan; haurrentzako eta emakumezkoentzako jolasak, 14:00-20:00; kultur gaua: antzerkia, Renacer, Vivencias, Bolivia eta Orioko dantza taldearen dantza saioak, 20:00etan; urte berriagatik topa egitea, 00:00etan; ondoren, areto futboleko eta saskibaloiko sari banaketa.

ERAKUSKETAK

■ Salatxo tabernan eta Erregeak arte Orioko argazki zaharrekin osatutako erakusketa egongo da, Maite Garcia *Ramirok* utzitako argazkiekin.

■ Abenduaren 19a arte, Antonio Elespe Argazki Rallyan parte hartu zuten oriotarren lanen erakusketa.

**Herribil 4**

Laugarren urtez jarraian Herribil ikuskizuna izango da, abenduaren 27an aurten. Berrikuntza batzuk izango dira, formatu aldetik, batez ere, Iban Egiguren eta Iñigo Gaiton aurkezleek zenbait bideoklipen laguntza izango baitute. Harribil, Talai Mendi, OKK Gazte Asanblada, Errikotxia... han izango dira eta sorpresaren bat edo beste ere izango da.

09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

■ Abenduaren 23tik 31ra, Txurumuski aisialdi taldearen erakusketa, 10 urte egin dituela ospatzeko. 09:00-13:00 eta 16:00-20:00, kultur etxean.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, abenduaren 30ean altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira eta Udalean nolakoak diren jakinarazi.

KONTZENTRAZIOA

■ Orion, abenduaren 31n,

euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila, plazan.

UDALBATZARRA

■ Abenduaren 23an urteko azken udalbatzarra. 19:00etan, Orioko Udaleko udalbatzar aretoan.

FILMAK

■ Abenduaren 27an, *Olentzero eta subilaren lapurreta*. 17:00etan, kultur etxean.

■ Abenduaren 28an, *Ipar haizearen erronka*. 17:00etan, kultur etxean.

■ Abenduaren 29an, *Maitagarri amandrea*. 17:00etan, kultur etxean.

ARETO FUTBOLA

■ Abenduaren 21ean, Iturriondo Zurbaranbarri-Orioko Tabernak.

FUTBOLA

■ Abenduaren 20an, regional kategorian: Orio-Mutriku. Jubenilen ohorezko kategorian, kopa eta jaitsieran: Orio-Vasconia. Infantiletan: Ekintza-Orio.

PLAIEROAK

■ Abenduaren 28an, emakumezkoetan: Kupela-Xixario. Gizonezkoetan: Kepa Loidi-Tarin Euskalduna; Asti-Unar.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke-merke, doako zerbitzua da-eta gurea.

ALOKAIRUA

■ Edozein negozio zabaltzeko lokala alokagai Orion, Eusko Gudarin. Informazio gehiago: 943 83 09 29 (Pilar).

■ Alokatzeko pisu bila nabil

Orion. Tf: 625 70 37 05 (Joseba).

SALGAI

■ Volkswagen Golf autoa salgai, 1991. urtekoa. Tf: 630 77 88 07.

■ Mercedes Class E autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 647 10 16 46.

■ Hiru ateko Peugeot 206 autoa salgai. 10 urtekoa, 144.000 km. Gasolina. 2.800 euro. Tf: 615 73 69 11.

■ Taxi lizentzia salgai, Orion. Tf: 669 89 10 20.

■ Izozgailua salgai. Berri-berria eta egoera onean. Tf: 696 33 28 80 (Jone).

GALDUTAKOAK

■ Setter arrazako txakur bat galdu zen azaroaren 22an, Iturriotz inguruan. Dik du izena eta zuri-beltza da da. Belarri beltzak ditu eta bizkar zabalekoa da. Ikusi duenak dei dezala, arren, 628 06 94 12 zenbakira.

■ Kontxako barandilla duen lepoko galdu nuen azaroaren 23an, Iturbidetik Zaharren Babes Lekura bidean. Aurkitzen duenak dei dezala, mesedez, 943 24 89 68 zenbakira.

■ Garajeko mandoari lotuta dagoen Volkswagen auto baten giltza galdu nuen azaroaren 23an. Aurkitzen

duenak udaltzaingoan utz dezala, mesedez.

LAN ESKAINTZAK

■ Haurren geletako hormetan mota eta neurri guztietako marrazki eta irudiak margotzen dira. Tamainuaren araberako prezioa. Azkar eta modu onean. Enkargu berezietarako, prezio bereziak. Tf: 607 42 44 97.

EROSGAI

■ Kutxa (arkoi) motako izozgailu handi bat erosiko nuke. Tf: 696 33 28 80 (Jone).

